ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 11, asteazkena • 130 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

514/2026 Foru Agindua, urriaren 27koa. Prozedura hastea Ekian Berri, AIEk (Interes Ekonomikoko Taldeak) Arabako Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteizko udalerrietako lurzoru urbanizaezinean sustatutako Ekian Berri parke fotovoltaikoaren plan berezia izapidetu eta onesteko

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren irailaren 2ko 411/2026 Foru Aginduaren bidez, ebatzi zen Ekian Berri parke fotovoltaikoaren plan bereziaren eraginpeko udalei bi hilabeteko epea ematea horietako batek plan hori izapidetzea eta onestea bere gain hartuko zuen akordio bat lortzeko.

Foru agindu hori 2026ko irailaren 3an jakinarazi zitzaien Vitoria-Gasteizko eta Arratzua-Ubarrundiako udalei.

Arratzua-Ubarrundiako Udalak, 2026ko irailaren 16ko osoko bilkuran, adierazi du uko egiten diola plan berezia izapidetu eta onestea bere gain hartzeari. Erabaki hori 2026ko urriaren 5ean jakinarazi zitzaion Arabako Foru Aldundiari.

Bestalde, Vitoria-Gasteizko Udalak ere, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2026ko urriaren 1eko Dekretuaren bidez, uko egin dio Ekian Berri parke fotovoltaikoaren plan berezia izapidetu eta onestea bere gain hartzeari. Ebazpen hori 2026ko urriaren 6an jakinarazi zitzaion Arabako Foru Aldundiari.

Aurrekari horiei zuzenbideko oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Lehena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, bat etorriz Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauarekin eta bat etorriz baita Arabako Foru Aldundiko Departamentuak 2023-2027 legegintzaldirako zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuarekin ere.

Bigarrena. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97.1 artikuluaren arabera, plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoaren arabera egin, izapidetu eta onetsiko dira. Beraz, 95.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, plan partziala formulatzea udalei dagokie, eta beste edozein pertsona fisikok edo juridikok ere egin dezake.

Hirugarrena. 2/2006 Legean ez dago indargabetutako martxoaren 6ko 5/1998 Legearen 4.2 artikuluaren antzeko manurik. Haren arabera, udalaz gaindiko eremuko plan partzial eta bereziak direnean, hasierako eta behin-behineko onespena emateko eskumena, eragindako udalerrien artean akordiorik lortzen ez bada, dagokion foru aldundiari egokituko litzaioke, lurralde historiko desberdinetako udalerriei eragiten dienean izan ezik; kasu horretan, eskumena Eusko Jaurlaritzari egokituko litzaioke.

Lege hutsune hori judizialki ebatzi da 2/2006 Legearen 92. artikuluan plangintza orokorraren bateragarritze planetarako ezarritako eskumen arauak analogiaz aplikatuz udalerri bati baino gehiagori eragiten dioten plan berezietarako.

Artikulu horrek, bateragarritze plana formulatzeari, izapidetzeari eta onesteari buruzkoak, eragindako udalerriak ados jartzen ez direnean soilik aurreikusten du aldundiaren esku hartzea:

"1. Hirigintzako antolamenduko planak udalerri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, eragindako toki entitateetako bakar batek egin ditzake formulazioa eta izapideak, hala badagokio, udal guztien artean iritsitako akordioaren arabera.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Akordiorik ez badago, foru organoak -arazoak lurralde bakar bati eragiten badio- edo Autonomia Erkidegoko organoak -lurralde bati baino gehiagori eragiten badio- bi hilabeteko epea ezarriko du akordio hori iristeko. Epe hori amaituta akordiorik lortu ez bada, foru administrazioak edo Autonomia Erkidegokoak -dagokionak- bateragarritze plan bat egin, izapidetu eta onartuko du. Izapideetan, entzunaldia eskainiko zaie arazoarekin zerikusia duten toki entitateei".

Aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, eta emandako epea igaro denez, eta egiaztatu ondoren bi korporazioek ez dutela akordiorik lortu haietako batek izapidetzea bere gain har dezan, izapidea egintzat jotzen da, eta ez da inolako akordiorik lortu. Ondorioz, Arabako Foru Aldundiari dagokio plan berezia izapidetzea eta, hala badagokio, onestea.

Horrenbestez, nire dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ekian Berri, AIEk sustatutako Ekian Berri parke fotovoltaikoaren plan berezia izapidetu eta onesteko prozedura hastea.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoari eskatzea has dezala Ekain Berri parke fotovoltaikoaren plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arrunta, eta espedientea eragindako administrazio publikoen eta pertsona interesdunen kontsultapean jarriz, ingurumen ebaluazioari buruzko legerian jasotakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena. Plan bereziaren zirriborroa eta hasierako dokumentu estrategikoa interesdunen eskura daude Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren bulegoetan, jendaurreko ordutegian, eta https://web.araba.eus/es/urbanismo/planes-especiales-parques-eolicos web orrian.

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena. Ebazpenaren berri ematea Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoari, Ekian Berri AIEri eta Arratzua-Ubarrundiako eta Vitoria-Gasteizko udalei.

Seigarrena. Foru agindu hau izapide egintza ez-kualifikatua da, eta bere aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 27a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.11 06:53:22 Z